

TURISMO TEKNIKARIA HAUTATZEKO PROZESUA

MEREZIMENDUEN BALORAZIOAREN BEHIN-BEHINEKO EMAITZAK

BEHIN-BEHINEKO AZKEN EMAITZAK

Epaimahaiak, oinarrien 8.2 atalari jarraiki, oposizio fasea gainditu duten hautagaien merezimenduak baloratu eta merezimenduen balorazioaren behin-behineko emaitzak onartu ditu.

Horrekin batera, oinarrien 9. atalaren argitara, oposizio faseko eta merezimenduen lehiaketako emaitzak batu ondoren, behin-behineko azken emaitzak onartu ditu.

Horrenbestez, argitara ematen ditugu merezimenduen balorazioaren behin-behineko emaitzak eta behin-behineko azken emaitzak.

Hautagaiek 3 laneguneko epea dute behin-behineko emaitza horien aurka erreklamazioak aurkezteko. Erreklamazioak aurkezteko epea amaituko da urtarrilaren 16an. Erreklamazioak idatziz aurkeztu behar dira Udal Elkarteko sarrera erregistroan.

Erreklamaziorik ez baldin bada, behin-behineko emaitzak behin betiko bilakatuko dira, besterik gabe. Erreklamaziorik baldin bada, aztertu, dagokiona ebatzi eta behin betiko emaitzak onartu eta argitaratuko ditu Epaimahaiak.

Epaimahaia
2019ko urtarrilaren 11

MEREZIMENDUEN BALORAZIOAREN BEHIN-BEHINEKO EMAITZAK

	LAN-ESPERIENTZIA					PRESTAKUNTZA															GUZTIRA
	A		B		Guztira	1		2		3		4		5		6		7		Guztira	
	H	P	H	P		I	P	I	P	I	P	I	P	I	P	I	P	I	P		
44332325D	11,0	5,5	1,5	0,38	5,88	1,0	2,5	0,0	0,0	1,0	1,0	1,0	0,25	0,0	0,0	1,0	1,5	0,0	0,0	5,25	11,13
44164039Z	20,0	10,0	20,0	5,0	15,0	0,0	0,0	1,0	2,5	0,0	0,0	3,0	0,75	0,0	0,0	1,0	1,5	0,0	0,0	4,75	19,75
72435811W	0,0	0,0	20,0	5,0	5,0	0,0	0,0	0,0	0,0	1,0	1,0	2,0	0,5	1,0	2,5	1,0	1,5	2,0	1,0	6,5	11,50
44145144W	0,0	0,0	20,0	5,0	5,0	0,0	0,0	2,0	5,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	1,0	1,5	1,0	0,5	7,0	12,0
44566986R	0,0	0,0	20,0	5,0	5,0	0,0	0,0	2,0	5,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	1,0	0,5	5,5	10,5

Ikus irizpideak, balioak eta oharrak hurrengo orrialdean.

Irizpide eta balio hauen argitara baloratu dira merezimenduak (oinarrien 8.2 atalari jarraiki)

Lan-esperientzia A	Lan-esperientzia, deialdiko 2. oinarrian zehaztutako eginkizunekin lotura zuzena duten lanak burutzen, administrazio publikoan nahiz enpresa pribatuan: hilabete bakoitzeko 0,5 puntu eta gehienez 10 puntu.
Lan-esperientzia B	Lan-esperientzia, deialdiko 2. oinarrian zehaztutako eginkizun eta kompetentziekin zeharkako lotura duten lanak burutzen, administrazio publikoan nahiz enpresa pribatuan: hilabete bakoitzeko 0,25 puntu eta gehienez 5 puntu.
Prestakuntza 1	Antolaketa eta kudeaketarekin zerikusi zuzena duen unibertsitate gradu baten jabe izatea, hala nola, enpresa zientziak, humanitateak enpresa, antolakuntzako ingeniari-tza eta antzekoak: 2,5 puntu.
Prestakuntza 2	250 ordutik gorako ikastaro bakoitzeko 2,5 puntu, gehienez 5 puntu.
Prestakuntza 3	100-249 ordu arteko ikastaro bakoitzeko puntu 1, gehienez 3 puntu.
Prestakuntza 4	20-99 ordu arteko ikastaro bakoitzeko 0,25 puntu, gehienez 2 puntu.
Prestakuntza 5	Euskararen laugarren hizkuntza eskakizuna (edo baliokidea), 2,5 puntu.
Prestakuntza 6	Hizkuntzak: ingelesa, frantsesa: C1 (edo baliokidea) edo goragoko maila, hizkuntza bakoitzeko 1,5 puntu (gehienez 3 puntu).
Prestakuntza 7	Beste hizkuntza batzuk (alemana, italiara...): B2 (edo baliokidea) edo goragoko maila, hizkuntza bakoitzeko 0,5 puntu (gehienez 2).

Oharrak:

Lan-esperientzia baloratzeko atalean H hizkiaren zutabearen adierazi da irizpide zehatz horretan zenbat hilabete baloratu diren (hautagai batek oinarrietan ezarritako muga gainditu badu, muga horri dagokion hilabete kopurua adierazi da). Lan-esperientziako azpiatal bakoitzaren puntu balioa (P) atera da hilabete kopurua hileko balioarekin biderkatuta.

Prestakuntza baloratzeko atalean I hizkiaren zutabearen adierazi da irizpide horretan zenbat unitate baloratu diren (ikastaroak, hizkuntzak...). Prestakuntzako azpiatal bakoitzaren puntu balioa (P) atera da unitate kopurua bakoitzaren balio-unitatearekin biderkatuta (balio-unitate ezberdina ikastaroaren ordu kopuruaren edo hizkuntza kopuruaren arabera).

BEHIN-BEHINEKO AZKEN EMAITZAK

NAN	1. ARIKETA	2. ARIKETA	MEREZIMENDUAK	GUZTIRA		
44164039Z	29,75	24,00	19,75	73,50		
44145144W	30,25	23,25	12,00	65,50		
44332325D	28,00	24,75	11,13	63,88		
72435811W	28,50	21,00	11,50	61,00		
44566986R	17,75	16,50	10,50	44,75		

Oharra: behin-behineko azken emaitzak bere horretan behin betiko bilakatzen badira, Epaimahaiak proposamena egingo dio dagokion organoari, batetik, azken emaitzen arabera puntu gehien eskuratu dituen hautagaia turismoko teknikariaren lanpostua betetzeko bitarteko funtzionario izendatzeko eta, bestetik, oposizio-lehiaketa gainditu duten hautagaiekin lan-poltsa eratzeko, hautaketa-prozesua arautzen duen deialdiko 9. oinarriak ezarritako eran.